




MENDIAN GORA HARITZA



Doinuen sortzaileak: Imanol eta Mikel Urdangarin.

Bertso honen egilea: Xabier Amuriza (1941 Etxano, Bizkaia).

Bertsoaren berri

Xabier Amurizak bizitzari jarritako sorta da. Kantua, doinu malenkoniatsuan, Imanol abeslariak plazaratu zuen “Iratze okre geldiak” kasetean (IZ, 1982).

Mikel Urdangarinek doinuari esperantza eta bizipozaren indarra eman zion “Margolaria” CDan (Elkar, 2017).

Mendian gora **haritza**
auntzak haitzean **dabiltza**
itsasoaren arimak dakar
ur gainean **bitsa**.
Kantatu nahi dut **bizitza**
usteltzen ez bazait **hitza**
mundua dantzan jarriko nuke
Jainkoa **banintza (bis)**.

